

ETXEKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA		
Tartea	Hileko ordainsaria euro/hil	Kotizazio-oinarria (euro/hil)
1.º	319,00-raino	296,00 €
2.º	319,01-tik 495-ra	423,00 €
3.º	495,01-tik 672-ra	584,00 €
4.º	672,01-tik 850-ra	761,00 €
5.º	850,01-tik 1029-ra	941,00 €
6.º	1029,01-tik 1204-ra	1116,00 €
7.º	1204,01-tik 1381,20-ra	1381,20 €
8.º	1381,21-etik aurrera	Hileko ordainsaria

Kontzeptua	Enplegatzaile	Langile	Total
Kontingentzia arruntengatik	23,60%	4,70%	28,30%
*Laneko istripu eta gaixotasunegatik	1,50%		
Langabezia(*)	5,50%	1,55%	7,05%
Soldatak Bermatzeko Funtsa	0,20%		0,20%
Belaunaldiarteko Ekitaterako Mekanismoaren (BEM) gehikuntza	0,67%	0,13%	0,80%

**Kontingentzia profesionalak (laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak), prima-tarifa (abenduaren 28ko 42/2006 Legea, Estatuko 2007ko Aurrekontu Orokorrera—laugarren xedapen gehigarria—, abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege-Dekretuaren azken xedapenetako bosgarrena —97. epigrafeko kodea—); ateratzen den kuota enplegatzailearen kontura izango da soil-soilik.

- ABE (Aldi Baterako Ezintasun): 0,80%.
- BHB (baliaezintasuna, heriotza eta biziraupena): 0,70%.

Hona hemen sistema berezi honetan 2025ean aplikatu beharreko kotizazio-onurak:

- Kontingentzia arrunten gainean % 20ko deskontua dago, langilearen kontura. Hobari hori 14/2017 EDan agertzen da. Hobari horrek ez du ezeztatzen lehendik familia ugarienezako zegoena. Langabeziarako eskubidearen aplikazio berriarekin, langileek % 80ko hobaria izango dute tributatu beharreko kontzeptu berrien, langabezia-kotizazioaren eta Soldatak Bermatzeko Funtsaren gainean.
- **Familia ugariak: % 45eko hobaria** mantentzen da kontingentzia arrunten kotizazioan, **baldin eta 2023/04/01 baino lehen eskatu badute.**

- % 80ko deskontua langabezia-kuotan eta Soldatak Bermatzeko Funttsaren (FOGASA) kotizazioan.
- **% 75eko murrizketa** kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, 62 urte beteak dituzten langileen aldi baterako ezintasun-egoeran. (murrizketa hori aldi baterako ezintasunak irauten duen bitartean baino ez da aplikatuko).
- % 80ko hobaria FOGASaren kotizazioan (2022ko urriaren 1etik aurrera indarrean).
- **% 100eko hobaria** kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, genero-indarkeriaren biktima den langile bat ordezteko kontratua formalizatzegatik.
- **% 100eko hobaria** kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, langilea ordezkatzeko bitarteko kontratua formalizatzegatik, etetearen arrazoia haurdunaldiko arriskua edo edoskitze naturaleko arriskua, jaiotza eta adingabearen zaintza denean.
- Kuota osoaren % 100eko hobaria izango da arrazoi horiengatik ordezkatu bada langilea.